

## **EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU**

### *Manifestaziorako hitzartzea*

Arratsaldeon guztioi eta eskerrik asko, bene-benetan euskaraz bizitzeko nahia lau haizetara zabaltzeko egindako ahaleginarengatik. Negu gorriko eguna dugu gaurkoa, tenperaturari dagokionez, baina Negu Gorriak erreferentziatzen hartuta “Euskalduna naiz eta harro nago” kantaren letra da gaur, hemen, islatzen are garena. Euskaldunak garelako eta harro gaudelako.

Euskaraz bizi nahi dugu. Bizi, diogu, BIZI (hizki larriz). Tarteka erabiltzea, aukera urriak baliatzea, egunkarietan euskaraz zeozer dagoen jakiteko orrialdeak arakatzea, euskaraz zerbait dioen etiketa bat topatzea ez baita bizitzea. Euskaraz bizi nahi dugu, goizetik gauera, iparraldetik hegoaldera, goitik behera, ez dugu apurrik nahi, handira jokatzen dugu, harrotasunez bizi nahi dugu.

Euskaraz bizi nahi dugu, euskaraz ez bada, ez delako bizitzea guretzat. Euskaraz bizi nahi dugu, eskubidezkoa delako; justiziazkoa delako. Euskaraz bizi nahi dugu betidanik bizi izan delako lurralde hauetan euskaraz. Euskaraz bizi nahi dugu, euskaraz hitz eginez etorkizuna eraikitzen ari garelako. Euskaraz bizi nahi dugu; zergatik ez?

Eta orduan, zergatik atera behar dugu kalera gure herriaren berezko hizkuntzan bizi nahi dugula aldarrikatzeko? Itziarrek lehen aski ongi azaldu dizkigu zergatiak. Bere egunerokotasunak berak eragin du Itziar gaur Donostiara etortzea, bai eta hemen gauden guztiok ere. Euskaraz bizitzeko hautua egindakoan izan dituen oztopoak partekatu ditu gurekin, eta seguru nago gutako bakoitzak, geure burua islatuta ikusi dugula berak azaldu duen egoeraren batean. Ez zaizkigu arrotzak egin Itziarrek azaldutakoak.

Baina gaurkoa ez da oztopoak zerrendatzeko eguna. Gaur harrotasunerako eguna da. Gaur erakutsi dugu bagarela euskaraz bizi nahi dugun herritarrak, eta beraz, euskararen herriari, guri, dagokigu euskaraz bizi ahal izateko baldintza politiko, ekonomiko eta juridikoak erdiestea.

Gaur erakusten ari garen euskaraz bizitzeko nahiak gure hizkuntzaren berreskurapen-prozesua azkartu behar du, bai ala bai. Bizitzeko nahiak ekarri du euskara gaur egunera, eta bizitzeko nahiak eramango gaitu berreskurapenera.

Halere, euskaraz biziko bagara erabakiak ere hartu beharko dituzte. Lehenik eta behin euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa bermatzeko politikak behar dira; eta lasai egon daitezela, erabaki zuzenak hartuz gero, euskalgintzak tresnak prest ditu, urtetan gure herritarrak euskaldundu dituzten tresna eraginkorrak. Bestetik, euskararen erabilera bermatzeko espazioak sortu eta hedatzeko erabaki irmoak hartu behar dituzte, eta hor ere, lasai, tresnak badaude, baditugu. Eskarmentu handia du euskalgintzak espazioak euskalduntzen. Hartara, erabakiak behar dira, eta hor ere hizki larriz esan behar dugu: **ERABAKI AUSARTAK.**

Hor egon gara eta hor egongo gara, ekin diezaiogun elkarrekin hizkuntzaren berreskurapen-prozesuari.

Badakigu lan hori ez dela makala, baina badakigu azken hamarkadotan erakutsi dugun determinazioari esker pentsaezinak izan zitezkeen tresnak sortu ditugula euskaraz bizitzeko: hezkuntzan, sorkuntzan, helduen euskalduntzean, hedabideetan, interneten, zientzian, lan-munduan, motibazioan... Harro egoteko modukoa da euskalgintzak egin duen ekarpena, gaur Donostian dagoen nahia ikustea bezain harro egoteko modukoa

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako instituzioetan ere aldaketak izan dira eta hemendik gutxira ere izango dira. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan erabaki ausartak hartzeko moduan daudela uste dugu Erakunde gehienetan gaur erakusten ari garen euskaraz bizitzeko nahi irmoari erantzuteko erabakiak hartzeko aukerak daudela uste dugu; hortaz, ekin diezaiotela berandu baino lehen nahi hori errealitate bihurtzeari.

Gure garaia iritsi da, lagunok, euskaraz bizi nahi dugunon garaia. Eta horretako formula magikorik ez dago, pasioa, determinazioa eta lana baizik. Gutako bakoitzak geure burua bihurtu behar dugu eragile. Hemen bildu garenetako bakoitzak, zuotako bakoitzak, aukera du eragile bihurtzeko, euskaraz biziz eta euskaraz bizitzearen arabera jardunez. Parte hartzen dugun gune guztietan gure nahia mahai-gaineratuz, ikusgarri bihurtuz.

Eragile izan gaitezkeela sinetsi behar dugu, gauzak alda ditzakegula sinetsi behar dugu. Niri, behinik behin, gaurko argazkiak hori sinesteko milaka arrazoi eman dit, zuetako bakoitzak arrazoi bat eman dit. *Euskaraz bizi nahi dut* antzinako ekimen arrakastatsua izan zela gogoratuko dugun egunera iritsi behar dugu

*Gure hitzak, esan berriz esan, ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal* dio lehen entzundako kantak. Ez dira ahaztuko, ez, lagunok, gure hitzak. Ez dira inoiz ahaztu edota galdu, eta gaur horren testigantza bizia erakutsi dugu Donostiako kaleetan. Aberatsak gara, euskara dugu. Zoriontsuak gara, ez diogu beldurrik lanari, euskararen herria ez da etsipenean erortzen. Gure garaia da, euskaraz bizi nahi dugunon garaia.

Euskaraz lan, irakurri, kontsumitu, pentsatu, jolastu, maitatu, gozatu, hartu, eman, entzun...  
BIZI, BIZI nahi dugulako, ekin lanari!!! Eskerrik asko

---

*Donostian, 2012ko abenduaren leian*  
Paul Bilbao Sarria  
Kontseiluko idazkari nagusia